

**EiTB Taldeko  
Emakumeen eta Gizonen  
Berdintasunerako III. Plana  
(2019-2022)**



2019ko ekaina



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plan honetan, gure berdintasun politika garatzeko estrategiak zehazten dira. EiTB Taldearentzat eta EiTBko langileentzat, berdintasun politika hori konpromiso irmo bat da, erakunde berdinzaleago baten eta gizarte berdinzaleago baten oinarriak ezartzeko beharrezkoak diren jarduketa-ildoak sustatzearekin eta lantzearekin lotzen gaituena.

Datozen lau urteetarako lan-plangintza honek aurreko planetako helburuetako askori eusten die eta, horrekin batera, **ikuspegi eta asmo berriak** eranstean ditu, bai herritarrek, bai EiTBko langileek berdintasunaren arloan egiten dituzten eskakizunei erantzunez. Hedabide publikoa garen aldetik, erreferentea izan behar dugu eta, erantzukizunez, geure egiten dugu betebeharrak hori. **Helburua da gure gizartean oso errotuta dauden elementuetan aldaketa bultzatzea, jakinik elementuon kausak eta adierazpenak faktore askoren arabera daudela** eta, beraz, jarduketek ibilbide luzekoak izan beharko dutela eta beste hainbat eragilerekin elkar hartuta aritzea eskatuko dutela.

EiTBn, gogotik saiatzen gara genero-ikuspegia eranstean eguneroko eginkizunetan eta gure hedabide guztietako edukien lanketan. Ez dugu horretan etsiko, eta etengabe arituko gara berdintasunean aurrera egiteko.

Era berean azpimarratu behar dut EiTB Taldeak bere jardueraren oinarriko printzipiotzat duela pertsonen duintasuna errespetatzea eta haien eskubideak babestea eta, horregatik, zero tolerantziako jarrera dugula sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko portaeren aurrean, eta baita edonolako diskriminazio zuzena dakarten portaera guztien aurrean ere.

## **Maite Iturbe Mendialdua**

EiTBko zuzendari nagusia

## Aurkibidea

Sarrera.....	4
III. Plana kudeatzeko egiturak.....	5
III. Planaren kudeaketa- eta ebaluazio-sistema.....	6
<b>Berdintasun Politika lantzeko eta garatzeko programak.....</b>	
P1. Lidergoa eta estrategia.	7
P2. Erakundearen politika eta kultura.	8
P3. Langile-kudeaketa.	9
P4.. EITB trazio-erakunde gisa, inguruarekiko harremana.	10
P5. EITBren edukiak.	11
<b>Berdintasunerako jarduketa-ildoen garapena (2019-2022) .....</b>	<b>12</b>

## 01. | SARRERA

EiTBren Berdintasunerako Plan hau Taldean egiten den **hirugarrena** da, gizonen eta emakumeen berdintasunaren alorrean Euskadin egikaritzen ari diren legegintza-garapenei eta gobernutik markatzen diren zuzentarauei erantzunez.

**4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak** xedatzen zuen jada bere 40. artikuluan (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta politikak) honako hau: *«Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak, beti, baita enplegatutako pertsona kopuruaren edo beste irizpide batzuen arabera erregelamenduz zehaztuko diren enpresa pribatuek ere, hala enpresa barruan nola kanpoko jardunean, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak biltzen dituzten planak edo programak egin behar dituzte».*

Helburu hori betetzeko, EiTB Taldea lehendik alor horretan lanean ari bazen ere, 2010ean jarri zen abian Aukera Berdintasunerako I. Plana, eta haren jarraipena da hirugarren hau, **Emakunderen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak** proposatzen dituen eskakizun eta erregulazioak aintzat hartuz.

Zehazki, III. Plan hau Emakunderen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren zuzentzara nagusien ildoan txertatzen da; hark xedatzen du Aukera Berdintasunaren alorrean egiten den lan publikoa bideratu behar dela, beste helburu batzuen artean, erabakitzen «administrazioaren barneko antolamendu- edota funtzionamendu-aldaketak, balio-aldaketa, emakumeen ahalduztea, gizarte-antolamendu erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeriaren erazketa, gizarte-alorreko erronka bezala sustatzera».

Legegintza- eta gobernu-esparruak ez ezik, helburu horiek definitzeko EiTBko berdintasun-egoerari buruz egindako diagnosiak antzeman dituen hobekuntza-alorrak ere zehazten ditu plan honetan lantzen diren ildo estrategiak.

Nolanahi ere, ez da desagertzen lehen plana sorrarazi zuen helburua, genero-ikuspegia EiTBko jardura guztietan txertatzea, alegia. EiTBren egituraren txertatze horrek bermatuko du ezartzen diren neurriak ez direla iragankorrak izango eta haiek abian jartzeko ardura dutenen partetik konpromiso irmoarekin landuko direla.

Jarduketa-ildoek mugarrizten dituzte EiTBk abian jarri behar dituen eta izaera dinamikoa duten jarduketak, eta EiTBren berdintasun-politikaren garapen-esparruan etorkizunean ager daitezkeen beharrietara egokitu daitezke.

Helburu horiek betetzeko, aipatu esparruetan berdintasunerantz aurrerapausoak emateko erabakigarritzat jo diren lan-ildo estrategikoen arabera egituratu da Plana, eta horiek honako hauek dira:

- | Lidergoia eta estrategia
- | Erakundearen politika eta kultura
- | Langile-kudeaketa
- | EiTB trakzio-erakunde gisa, inguruarekiko harremana
- | EiTBren edukiak

Programa horietako bakoitzean barnebiduko diren ekintzetako askok haietako bat baino gehiagotan izango dituzte emaitzak, faktore askotariko zioei erantzuten dioten ekinbideak direlako.

## 02. | PLANA KUDEATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK

Berdintasunerako Plana ezartzeko, hura sustatu eta koordinatuko duen egitura bat antolatu da EiTBn.

4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 10. artikuluan xedatzen duenez, administrazioak, bere egiturak egokitu behar ditu, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

EiTBk badu generoan aditua den pertsona bat Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritzako lantaldearen barruan. Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza EiTBren zerbitzu-publikoaren betekizuna garatzeaz arduratzen da, bai eta, besteak beste, EiTB Talde osoan zeharkako politiken ezarpena sustatzeaz ere. EiTBko Berdintasun arloko arduradunak berariazko prestakuntza du: EHUko *Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna: Berdintasunaren Eragileak* ('Enpresa' eta 'Administrazio publikoa' espezialitateak) masterra.

Profesional horrek du Plana ezartzeko prozesua lideratzeko eta ondoren lortutako emaitzak neurtzeko ardura. Halaber, haren eginkizuna da aurreikusten diren ekintzak abian jartzeaz arduratzen diren EiTBko gainerako pertsonen behar dituzten aholkuak eta laguntza ematea.

Berdintasun-helburuak landu ahal izateko, gainera, zeharlerrotasunean adituak diren bi kanpo-aholkularitzaren laguntza dugu.

EiTBren Berdintasunerako III. Planaren helburuak lortzeaz arduratuko dira, halaber, bai entitatearen Zuzendaritza eta bai Berdintasun Batzordea, non elkartzen baitira Zuzendaritzaren ordezkariak bat eta sindikatuak.

Osagarri modura, ezarpen-prozesuan edukiei dagokien atalean EiTBren Edukien Batzordeak ere hartuko du parte.

<b>Inplikaturiko eragileak</b>	<b>Jarduketa-ildoak</b>
Zuzendaritza Nagusia	Denak
Berdintasun Batzordea	1.2. eta 2.1. ildoak
Edukien Batzordea	5. programa. 1.2. eta 2.3. ildoak
Berdintasun-arduraduna	Denak
Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza	1.1., 2.4. eta 4.2. ildoak
Programa Zuzendaritza	5.1. ildoak
Giza Baliabideen Zuzendaritza	3. programa; 2.3. ildoak
Prestakuntza Saila	2.2. ildoak
Prebentzio eta Osasun Saila	3.4. eta 3.5. ildoak
Aholkularitza Juridikoko Zuzendaritza	4.1. ildoak
Sistema Zuzendaritza	2.4. ildoak
Zuzendaritza Komertziala	5.7. ildoak
Antena Eskubideen eta ETBren Koprodukzioen Koordinazioa	5.5. ildoak
EiTBko Haur-edukien Koordinazioa	5.6. ildoak
Kirol Zuzendaritza eta hedabide guztietako kirol arduradunak	5.4. ildoak
Hautaketa eta Beka Koordinazioa	5.4. ildoak

### 03. KUDEAKETA- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Plana kudeatzeko proposatzen diren mekanismo nagusiak honako hauek izango dira:

#### **Plangintza**

Urtean behin, Berdintasunerako III. Planean jasotakoan oinarrituz, urte horretan abiarazi beharreko helburu eta ekintzak jasoko dituen lan-egitasmo bat burutuko da. Gainera, lan-egitasmo honetan, honako hauekin zerkusia duen informazioa jasoko da:

- Jarduketaren izaera. Hasiera eta amaiera dituen ala urte osoan zehar gauzatuko den.
- Aurreikusitako epea.
- Aurrekontua.
- Arduradunak.
- Espero diren emaitzak.

#### **Jarraipena eta ebaluazioa**

Jarraipena etenik gabea izango eta urtero memoria edo txosten bat landuko da non azalduko baita urterako *a priori* aurreikusi ziren ekintzetan izandako aurrerapenak. Ekintzen arduradunengandik jasoko da haien lanketa ebaluatzeko behar den informazioa: datuak, neurrien garapena, baliabideak, parte hartu duten pertsonak, zailtasunak, ezarpenerako egin behar diren doikuntzak, etab.

Gainera, ahal den guztietan, adierazleak definituko dira, ahal den neurrian, helburuen lorpen-maila neurtu ahal izateko.

Azken buruan, EiTBko Berdintasun-arduraduna arduratuko da EiTBren III. Berdintasunerako Plana (2019-2022) ebaluatzeaz, 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## PROGRAMAK

### 1. programa | **Lidergoa eta estrategia**

Programa horren helburua da **EiTBn berdintasunaren kudeaketa, modu sistematikoan, bermatuko duten oinarrizko baldintzak ezarri** ahal izateko beharrezkoak diren jarduketak abian jartzen jarraitzea. Berdintasun Planari eta hark lantzen dituen ekinbideei egitura bat eta jarraipena eta denboran zehar hedapena segurtatzea ahalbidetuko duen arautegi bat ematea. Hartara, erakundeak berdintasunarekin duen konpromisoa zertuko da.

#### **Jarduketa-ildoak**

- **Berdintasun politikaren zeharlerrotasuna bematzea EiTBren estrategian** eta politika korporatibo guztietan, oinarrizko printzipio horren garapena eta ezarpena ziurtatzeko helburuarekin.
- **EiTBn berdintasunerako organoak** mantendu eta sendotzea, Berdintasun Planari eta hark lantzen dituen ekinbideei egitura bat eta jarraipena eta denboran zehar hedapena segurtatzea ahalbidetuko duen arautegi bat emanez.

## 2. programa | **Erakundearen politika eta kultura**

Emakumeen eta gizonen tratu- eta **aukera-berdintasuna errespetatzeko portaera-ohiturei** men egiten dietela bermatuko duen erakunde-kultura bat sistematizatzeko oinarritzko baldintzak ezartzeko beharrezkoak diren jarduketak biltzen ditu programa horrek.

### **Jarduketa-ildoak**

- Langileak **sentsibilizatzea** emakumeen eta gizonen berdintasunaren beharraz.
- **Prestakuntza-ekintzak** abian jartzeko bide-orri bat lantzea, EiTBko profesionalek nork bere lan-esparruan genero-ikuspegia txertatuko dutela bermatu ahal izateko.
- Bai edukietan eta bai barneko lan-prozeduretan emakumeak ikusgarri egitea ahalbidetuko duen **komunikazio inklusiboa** erabiltzea.
- EiTBn sortzen diren **datu-baseetan** eta **azterketa estatistikoetan** sexuaren aldagaia modu sistematizatuan txertatzen jarraitzea, eta aldagai hori jasotzen diren beste guztiekin gurutzatzea etorkizunean erakundearen barruan gerta litezkeen balizko diskriminazio-egoerak kausitu ahal izateko.

### 3. programa | **Langile-kudeaketa**

Programa horren xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituta **EiTBn egiten den langile-kudeaketari** jarraipena emateko **jarduketak burutzea**. Hartarako, diskriminaziorik gabeko lan-ingurumena zaindu, sendotu eta segurtatzea helburu duten ekintzei eutsiko zaie.

Programa horretan barne hartzen dugu Laneko Segurtasun eta Osasunerako EiTBren politikan genero-ikuspegia txertatzeko helburua ere, emakumeen eta gizonen berariazko beharrak kausitu eta jaso ahal izateko. Hartarako, lan-arriskueta eta -osasuneko prozedurak eta protokoloak egokitzen jarraituko da.

Jarduketa-esparru horretan barne hartzen da **arrisku psikosozialen artean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera**, eta protokoloa abian jartzea eta ezagutaraztea, horrelako portaeren aurrean batere tolerantziarik gabeko lan-esparru bat bermatu ahal izateko.

#### **Jarduketa-ildoak**

- EiTBn lan egiten dutenek inolako diskriminaziorik, zuzenekorik ez zeharkakorik, gabe lan-bizimodua, pertsonala eta familiakoa bateratu ahal izateko eskubidea egikaritzea bermatuko duten ekinbideak abian jartzea.
- EiTBko gizonen eta emakumeen artean **soldata-berdintasuna** dagoela zaintzea.
- Maila edo talde profesionaletatik erator litekeen emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio zuzenik ez zeharkakorik ez dela bermatzea.
- EiTBko **Laneko Prebentzio eta Osasun-sisteman genero-ikuspegia** txertatzea (adierazleetan, arriskueta, osasunean, etab.).
- Sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik gabeko lan-giroa lortu ahal izatea bermatzea.

## 4. programa | **EiTB trakzio-erakunde gisa, inguruarekiko harremana**

Programa horren xedea da **EiTBk emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten duen ekintza kanpora eramatea**, berdintasunaren trakzio-erakunde bihurtuz bere hornitzaile eta azpikontratatuak. Halaber, inpaktu positibo bat lortu nahi du bere ingurumenean EiTBk emakume eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa jendaurrean azalduz.

### **Jarduketa-ildoak**

- EiTB Taldearen **komunikazio korporatibaoren** tratamendua genero-ikuspegiarekin egin dadila areagotzea, mezu eredugarria helarazteko gizartearen gainerako kideei.
- Genero-ikuspegia txertatzea enpresa hornitzaileekin egiten diren hitzarmenen pleguetan eta **kontratazioetan**.
- Berdintasuna sustatzeko **erakunde-sareetako** kide izaten jarraitzea.

## 5. programa | **Edukiak**

Hedabideek gure nortasunaren eraikuntzan parte hartzen dute eta eragina dute gure mundu-ikuskeran eta gure baliorik errotuenetan. Generoari dagokionez, ideiak eskaintzen dizkigute: zertan datzan gizon izatea eta zertan emakume izatea, nola kontsumitu, jantzi, jokatu... behar dugun, etab.

Horregatik da ezinbestekoa Berdintasunerako III. Plan honetan oraindik lantzea geure hedabide guztietan emititzen ditugun eduki guztiak **genero-ikuspegia** aintzat har dezaten.

### **Jarduketa-ildoak**

- Edukiak sortzen dituzten enprekin jarduketak egitea **kanpoko produktio** programetan edukien genero-ikuspegiaren tratamendua egin dadin bultzatzeko.
- **Emakumeen eta gizonen presentzia parekatzea tertulietan**, programetako kolaborazioetan eta abarretan, sustatuz halaber emakumeen parte-hartzea tradizioz gizonezkoekin lotuago egon ohi diren gaietan (kirolean, politikan), eta gizonezkoena emakumeekin lotuago egon ohi direnetan (gizartea, gizarte-gaiak, genero-indarkeria).
- **Indarkeria matxistaren** eta haren askotariko agerpenen informazio-tratamendu zuzena egitea, indarkeria hori bere testuinguruan kokatuko duen kontakizuna eraikitzen lagunduz. Hori guztia indarrean dagoen legeriari men eginez eta komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologikoan onartutako konpromisoak betez.
- **Emakumeek egindako kirolaren** presentzia eta tratamendu egokia sustatzea EiTB Taldeko hedabide guztien informazio-agendan.
- Genero-ikuspegiaren txertaketa hedatzea **Zinema** Batzordearen b arruan proiektuak hautatzeko orduan (% 6).
- EiTBk **haurrei** bideratuta egiten dituen eduki guztiak egokiak eta genero-ikuspegiaren araberakoak izan daitezela bermatzea.
- **Publizitatea** onartzeko irizpideei eta emakumeentzat degradagarriak eta/edo diskriminatzaileak diren irudiak edo mezuak –bereziki emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, hutsal bihurtzen edo hartara bultzatzen dutenak– ez erabiltzeko betebeharrari erreferentzia egiten dioten tresna normatiboak betetzen direla zaintzea.

## **Berdintasunerako jarduketa-ildoen garapena (2019-2022)**

Jarduketa-ildo bakoitzerako, haien garapenerako ekintzak zehaztu dira datozen lau urteetarako. Planaren azken helburua da berdintasun-politikaren zeharlerrotasuna bermatzea bere jarduera guztietan, eta horregatik jarduketa-esparru bakoitzeko arduradunak direnei dagokie ekintza horiek abian jartzeko ardura.

Beraz, ekintza bakoitzaren arduradunek esleituko dituzte haiek egikaritzeko beharrezkoak diren baliabideak eta aurrekontuak, nor bere jardueraren barnean.

Azkenik, plan dinamikoa da eta, beraz, ekintza aldagarriak izango dira. Urteko memorian balioespen bat egingo da ildoen aurrerapenez eta lortzen diren emaitzez, eta ekintza-planak egokitu ahalko dira.

## 1. programa | LIDERGOA ETA ESTRATEGIA

**1.1 Jarduketa-ildo.** Berdintasun politikaren zeharlerrotasuna bematzea EiTBen estrategian eta politika korporatibo guztietan, oinarrizko printzipio horren garapena eta ezarpena ziurtatzeko helburuarekin.

### Ekintzak

	Arduradunak
EITB Taldearen dokumentu estrategiko guztietan berariazko berdintasun-helburuak txertatzea.	Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza
Langile guztiei helaraztea dokumentu estrategikoetan gai horri buruz EITBk markatu dituen <b>berariazko helburuak</b> .	Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza

**1.2 Jarduketa-ildo.** EiTBen berdintasunerako organoak eratu eta sendotzea, Berdintasun Planari eta hark lantzen dituen ekinbideei denboran zeharreko jarraipena eta hedapena segurtatzea ahalbidetuko duen egitura eta arautegia emanez.

### Ekintzak

	Arduradunak
Zuzendaritzaren eta sindikatuen ordezkariekin osatuta dagoen <b>Berdintasun Batzordeari</b> jarraiera ematea, egitekoak eta lan-plangintza bat emanez.	Berdintasun Batzordea
Berdintasun Batzordearen urteko lan-plangintza prestatu eta abian jartzea, Plana lantzeko egitura hori indartzea helburu dela.	Berdintasun Batzordea
<b>Aginte-koadro</b> bat zehaztea, berdintasun-adierazleekin, Planaren helburuen aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.	Berdintasun Arduraduna
<b>Berdintasun Batzordeari</b> jarraiera ematea, egitekoak eta lan-plangintza bat emanez.	Edukien Batzordea

## 2. programa | ERAKUNDEAREN POLITIKA ETA KULTURA

### 2.1 Jarduketa-ildoak. Langileak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren beharraz.

#### Ekintzak

#### Arduradunak

Langileak aldian-aldian jakinaren gainean jartzea, <b>barne-komunikazioko plan</b> baten bidez, Berdintasunerako III. Planaren jarduketetz, haren ezarpenaz eta lortzen diren emaitzei buruz.	Berdintasun Batzordea
2019-2022 aldirako EiTBren Berdintasunerako III. Planean ezarrita dauden <b>berariazko helburuak</b> langile guztiei eta interesdunei jakinaraztea. Langile guztiei jakinaraztea	Berdintasun Batzordea
EiTBren berdintasun-egoerari buruzko <b>diagnosia</b> jakinaraztea: langileen datu banakatuak, soldata-arrakala, pertzepzio-inkestaren emaitzak eta abarrak.	Berdintasun Batzordea

### 2.2 Jarduketa-ildoak. Heziketa-ekintzak abian jartzeko bide-orri bat lantzea, EiTBko profesionalek nork bere lan-esparruan genero-ikuspegia txertatuko dutela bermatu ahal izateko.

#### Ekintzak

#### Arduradunak

Berdintasun-gaiei buruzko hainbat urtetarako heziketa-plan bat lantzea kolektibo eta egoitza bakoitzarentzat.	Prestakuntza burua Berdintasun Arduraduna
Zuzendaritzara begira bideratutako sentsibilizazio-neurriei jarraitutasuna ematea, betiere kontziente izan daitezen EiTBn emakume eta gizonen egiazko berdintasunez lan egin behar dela.	Prestakuntza burua Berdintasun Arduraduna
Berariazko heziketa-ekintzak edukien profesionalentzat: Indarkeria matxistari buruzko kontzeptuak eta informazio-tratamendua, hizkera inklusiboa; kirol-informazioa, irudiak eta genero-ikuspegia oro har.	Prestakuntza burua Berdintasun Arduraduna
Berdintasun Batzordeko kideentzako nahitaezko heziketa.	Berdintasun Arduraduna
Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloaren esparruan diharduten guztientzako nahitaezko heziketa.	Berdintasun Arduraduna

**2.3 Jarduketa-ildoak. Komunikazio inklusiboa** erabiltzea bai edukietan eta baita barne-prozeduretan ere, emakumeak EITBn eta gizarte osoan ikusarazteko.

#### Ekintzak

Hizkera eta irudi ez-sexistari eta genero-indarkeriari buruzko protokoloak lantzeko sortutako lantaldeek egindako dokumentua burutzea eta haren kontraste-lana garatzea.

Hitzarmen kolektibo guztien hizkera egokitzea, inklusiboa izan dadin, haien aplikaziorako familia-eredu berriak aintzat hartuz.

#### Arduradunak

Edukien Batzordea

Giza Baliabideen Zuzendaritza  
Berdintasun Arduraduna

**2.4 Jarduketa-ildoak.** EITBn sortzen diren **datu-baseetan** eta azterketa estatistikoetan sexuaren aldagaia modu sistematizatuan txertatzen jarraitzea, eta aldagai hori jasotzen diren beste guztiekin gurutzatzea etorkizunean erakundearen barruan gerta litezkeen balizko diskriminazio-egoerak kausitu ahal izateko.

#### Ekintzak

Datuak biltzeko sistema edo programa informatiko guztiak genero-ikuspegira egokitzen jarraitzea, sexuaren aldagaia barne hartuta, egokia den guztietan.

Estatistika-datuak azaltzeko orduan, datuak sexuaren arabera banakatuta aurkeztea beti.

#### Arduradunak

Sistema Zuzendaria

Estrategia eta Komunikazio  
Zuzendaritza

### 3. programa | **Langile-kudeaketa**

**3.1 Jarduketa-ildoak.** EITBn lan egiten dutenek inolako diskriminaziorik, zuzenkorik ez zeharkakorik, gabe lan-bizimodua, pertsonala eta familiakoa bateratu ahal izateko eskubidea egikaritzea bermatuko duten ekinbideak abian jartzea.

#### Ekintzak

#### Arduradunak

EITBko hitzarmen desberdinetan jasota dauden kontziliazio-neurrien erabilpenaren azterketa eta jarraipena egitea, emakume eta gizonen artean bereizkuntza eginez, zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioak kausitzeko.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

Kontziliazio-neurriei buruzko informazio-kanpaina egitea langile guztiei, kontzeptuak argituz eta hitzarmenetan nola jasota dauden azalduz.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

**3.2 Jarduketa-ildoak.** EITBko gizonen eta emakumeen arteko soldaten berdintasuna zaintzea

#### Ekintzak

#### Arduradunak

Langileen datu-adierazleen zenbatespena, sexuaren arabera banakatuta, ahalik eta gehien sistematizatzea eta automatizatzea, Berdintasunerako Planaren aginte-koadroa elikatzeke eta txostenak egiteko, eta aldi behin informazioa banatzeko indarrean dagoen legeriaren arabera (informazio ez finantzarioa, soldata-arrakala) eta hitzemandako beste konpromiso batzuetarako.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

EITBren datu-baseetako informazioa egituratzeko erabiltzen diren kategoriak berrantolatzea, datuen ustiapena egin ahal dezagun indarrean dagoen legeria betez (soldata-arrakalari buruzko datuak).

Giza Baliabideen Zuzendaritza

EITBn soldaten arrakalaren bilakaera monitorizatzea eta, era berean, soldata-arrakala eragiten duten faktoreen azterketan sakontzea, neurri zuzentzaileak proposatu ahal izateko.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

**3.3 Jarduketa-ildoak.** Maila edo talde profesionaletatik erator litekeen emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio zuzenik ez zeharkakorik ez dagoela bermatzea.

#### Ekintzak

#### Arduradunak

**Talde profesionalak** definitzea generoaren, lanpostuen, kokapenerako irizpideen eta ordainsarien arabera sexuarekin korrelazioan jarritako analisi-irizpideak erabiliz.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

"Balio bereko lanaren" kontzeptua txertatzea, irizpide objektiboak (hezkuntza-betekizunak, kualifikazioa, erantzukizuna eta abar) erabiliz ebaluatu eta konparatzeko moduan.

Giza Baliabideen Zuzendaritza

**3.4 Jarduketa-ildoak. EITBko Laneko Prebentzioko eta Osasuneko sisteman genero-ikuspegia txertatzea.****Ekintzak****Arduradunak**

Azterlan eta lan-plangintza bat prestatzea genero-ikuspegia Laneko Prebentzioko eta Osasuneko sistemako prozedura eta protokolo <b>guztietan</b> txertatzeko.	Prebentzio eta Osasun burua Berdintasun Arduraduna
<b>Sexuaren arabera banakatzea</b> lan-absentismoari buruzko datuak (eta egoki irizten diren guztiak), kausitu ahal izateko, dagokien azterlana egin ondoren, emakumeengan eragina duten absentismo motek desberdintasunik ote duten gizonei eragiten dienen aldean.	Prebentzio eta Osasun burua
Genero ikuspegia txertatzea <b>jatorri psikosoziala duten laneko arriskuen</b> ebaluazioan.	Prebentzio eta Osasun burua Berdintasun Arduraduna
Emakumeen eta gizonen berariazko beharrianak aztertzea, <b>mediku-ikuskapen osagarrien</b> egungo eskaintza berrikusteko.	Prebentzio eta Osasun burua
Laneko arriskuen identifikazioaren barruan sartu eta lantzea emakume erreportariak albisteak kaletik ematen dituztenean jasotako jazarpenak.	Prebentzio eta Osasun burua
<b>Genero-indarkeria</b> pairatzen duten langileen sorospen eta babeserako ezarrita dauden legezko neurriak ezagutaraztea, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, genero-indarkeriaren kontrako babes integraleko neurrienak, xedatzen duenaren arabera.	Berdintasun Arduraduna

**3.5 Jarduketa-ildoak. Sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik gabeko lan-giroa lortu ahal izatea bermatzea.****Ekintzak****Arduradunak**

<b>Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa</b> ezagutaraztea langileen artean, horrelako portaeren aurrean batere tolerantziarik ezaren konpromisoa adierazteko jendaurrean.	Berdintasun Arduraduna
EITBekin lan egiten duten enpresa hornitzaileei sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa ezagutaraztea, eta beren erantzukizuna gogoraraztea.	Prebentzio eta Osasun burua Berdintasun Arduraduna
Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko heziketa, aholkularitza konfidentzialeko eta Berdintasun Batzordeko kideentzat.	Prebentzio eta Osasun burua Berdintasun Arduraduna
Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren biktima direnentzat laguntza psikologikoa gehitzea protokoloaren jarduketa-esparruan zehaztuta dauden ekintzen artean.	Prebentzio eta Osasun burua Berdintasun Arduraduna
Arriskuen prebentzioko eta lan-osasuneko prozeduren urteko memorian jasotzea gertatu diren (edo ez diren) sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpen kasuen datuak.	Prebentzio eta Osasun burua

#### 4. programa | **EiTB trakzio-erakunde gisa, inguruarekiko harremana**

**4.1 Jarduketa-ildoak.** Genero-ikuspegia txertatzea enpresa hornitzaileekin egiten diren hitzarmenen pleguetan eta kontratazioetan.

##### Ekintzak

Kontratazio-plana aztertzea genero-ikuspegia modu sistematikoan aintzat har dadin egokia den guztietan.

##### Arduradunak

Aholkularitza juridikoa

Enpresa hornitzaileekin harremana dutenei berdintasunaren arloan hartu diren konpromisoak jakinaraztea, betetzen direla zain dezaten.

Aholkularitza juridikoa

**4.2 Jarduketa-ildoak.** EiTB Taldearen korporazio-komunikazioaren tratamendua genero-ikuspegiarekin egin dadila areagotzea, mezu eredugarria helarazteko gizaritearen gainerako kideei.

##### Ekintzak

Oinarrizko irizpideen eta jardunbide egokien gidaliburu bat lantzea EiTBren korporazio-komunikazioko eta promozio-eko elementu guztietan (irudiak, testuak eta abarrak).

##### Arduradunak

Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza

Berdintasunari buruzko datuen ustiapena definitu eta automatizatzea, besteak beste erantzukizun sozialeko eta informazio ez finantzarioko memoriatan erabili ahal izateko.

Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza

**4.1 Jarduketa-ildoak.** Berdintasuna sustatzeko **erakunde-sareetako** kide izaten jarraitzea.

##### Ekintzak

Herritarrak kontzientziatzeko, Emakundek, bere eskumenekoa den esparruarekin zerikusia duten mezuak ezagutarazteko, egiten dituen kanpainei sostengua ematea, kasuan kasuko hitzarmenetan zehaztutako baldintzetan.

##### Arduradunak

Estrategia eta Komunikazio Zuzendaritza

Beste jardule batzuekiko topaketetan hartutako konpromisoak eta ezagutzak aldian-aldian ezagutzera ematea EiTBn.

Berdintasun Arduraduna

## 5. programa | Edukiak

### 5.1 Jarduketa-ildoak. Kanpoko produkzioko programetan edukien genero-ikuspegiaren tratamendua egin dadin bultzatzea.

Ekintzak	Arduradunak
Edukiak sortzen dituzten enprekin jarduketak egitea kanpoko produkzioko programetan edukien genero-ikuspegiaren tratamendua egin dadin bultzatzeko.	Programa eta Arte Zuzendaritza
EiTBren Estilo Liburuaren irizpideen betebeharrak ekoizteko enprekin egindako kontratuetan sartzea.	Aholkularitza juridikoa Programa eta Arte Zuzendaritza
Genero-ikuspegiaren gainean jarraitu beharreko gidak eta jarraibideak ekoizteko enprekin egindako kontratuei atxikitzea.	Edukien Batzordea Programa eta Arte Zuzendaritza

**5.2 Jarduketa-ildoak. Emakumeen eta gizonen presentzia parekatzea tertulietan,** programetako kolaborazioetan eta abarretan, eta sustatzea, halaber, emakumeen parte-hartzea tradizioz gizonezkoekin lotuago egon ohi diren gaietan (kirolean, politikan), eta gizonezkoena emakumeekin lotuago egon ohi direnetan (gizartea, gizarte-gaiak, genero-indarkeria).

Ekintzak	Arduradunak
Gai ezberdinetan adituak diren emakumeen kontaktu-agenda prestatzea.	Edukien Batzordea
Edukien arduradunei EiTBko programa guztietan emakume kopurua helaraztea.	Edukien Batzordea

**Línea de actuación 5.3. Indarkeria matxistaren** eta haren agerpen askotarikoen informazio-tratamendu zuzena egitea, indarkeria hori bere testuinguruan kokatuko duen kontakizuna eraikitzen lagunduz. Hori guztia indarrean dagoen legeriari men eginez eta komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologikoan onartutako konpromisoak betez.

Ekintzak	Arduradunak
Heriotza eragiten duen indarkeria matxistaren tratamendu informatiborako gidaliburu bat landu eta ezagutaraztea, gidaliburu horretan Kode Deontologikoko eta EiTBko Estilo Liburuko printzipioak aplikatzeko.	Edukien Batzordea

**5.4. Jarduketa-ildoak. Emakumeek egindako kirolaren presentzia eta tratamendu egokia sustatzea** EiTB Taldeko hedabide guztien informazio-agendan.

#### Ekintzak

EiTBko hedabide desberdinetako kirol informazioko profesionalekin lan talde bat sortzea, emakumeek praktikatutako kirola modu sistematikoan txertatzeko eta politika bateratua bat sortzeko.

Kiroletako erredakzioetan emakume kazetarien kopurua zabaltzea, beketako hautaketa prozesuan politika positiboak eginez.

Emakumeek praktikatutako kirolaren informazioa behar bezala tratatzeko gida bat egitea.

#### Arduradunak

Kirol Zuzendaritza

Hautaketa eta Beka Koordinazioa

Edukien Batzordea

**5.5. Jarduketa-ildoak. Genero-ikuspegiaren txertaketa hedatzea** **Zinema** Batzordearen barruan proiektuak hautatzeko orduan (% 6).

#### Ekintzak

Emakume sortzaileentzako politika positiboak (gidoia, muntaketa, ekoizpena eta zuzendaritza) EiTBk zinemako euskal proiektuetara egindako ekarpenerako hautaketa-irizpideetan zabaltzea.

#### Arduradunak

Antena Eskubideen eta Koprodukzioen Koordinazioa

**5.6. Jarduketa-ildoak. EiTBk hurrei bideratuta egiten dituen eduki guztiak egokiak eta genero-ikuspegiaren araberakoak izan daitezela** bermatzea.

#### Ekintzak

EiTBren hedabide guztien haur-programazioaren eduki bakoitzari dagozkion genero-berdintasuneko balioei buruzko informazio espezifikoak ebaluatzen duten eta berariazko informazioa ematen duten adierazleak diseinatzea

#### Arduradunak

EiTBko Haur-Edukien Koordinatzailea

**5.7. Jarduketa-ildoak. Publizitatea** onartzeko irizpideei eta emakumeentzat degradagarriak eta/edo diskriminatzaileak diren irudiak edo mezuak –bereziki emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, hutsal bihurtzen edo hartara bultzatzen dutenak– ez erabiltzeko betebeharrari erreferentzia egiten dioten tresna normatiboak betetzen direla zaintzea.

#### Ekintzak

#### Arduradunak

Autokontrol organoaren mende jartzeko konpromisoari eustea EiTBren hedabideetan publizitatea egitea, publizitate-araudia betetzen dela bermatzeko modu gisa.	Arlo Komertzialeko zuzendaritza
Genero-elementuak ebaluatzeko sartzea publizitatearen betetze juridikoko gida batean.	Arlo Komertzialeko zuzendaritza
Publizitate arloko enpresa laguntzaileekin lan egitea, Kode Deontologikoarekin bat egin dezaten.	Arlo Komertzialeko zuzendaritza